

MENTXAKAREN AITORPENA: La Navaleko lapurreta

(...)

La Navaleko nominei buruzko informazioa jaso genuen: 30 kilo; hilaren azkenean hurbiltzen omen ziren langileak kobratzera. Administrazioko eraikuntza nagusian zeuden bulegoetan prestatzen zituzten diru-zorroak. Sestaoko kuartela lantegitik ehun bat metrora zegoen; guardia zibil andana; beraz, lekuak bazuen eragozpenik. Enpresaren esparruko sarrera, bestalde, zaindari batek babesten zuen, eta fusila zeraman bizkarrean. Aurrena Biltzar Ttipian eta gero Herrialde Mahaian eztabaidatu genuen, eta onartu ondoren, prestatze lanetan murgildu nintzen.

Operazioan parte hartu behar zuen jendearekin bilduta, dozenaren bat, egitasmoan zein paper zegokion azaldu nion bakoitzari. Eraikuntzaren krokisa, kamuflajea eta egin beharreko mugimendu guztiak ere aztertu genituen, eta armekin ere saiatu ginen –pistolak, metrailetak, eta ebakitako errepikapen-eskopetak–, erabilera ohitzeko. Emakume bakarra zegoen taldean, Maite, eta Austrian egindako pistola metrailadore bat eman nion: 7,65 milimetroko “Scorpion” bat; oso arina, erabilera errazekoa.

–Egin ezan tiro –esan nion entrenamendu batean Maiteri.

Alderdi galdu batean geunden, Bilbo defendatzeko gerra garaian eraiki zuten Burdinazko Gerrikoan gordeta, eta pinaburu bat erakutsi nion zuhaitzaren adar batean zintzilik. Ez zuen asmatu.

–Nahikoa dun –esan nion tiro egiten jarraitzeko asmotan begira segitzen zuela ikusita–, munizio gutxi zeukanagu.

Gaztaina kolorekoa zeukan ilea; bizkarrean behera askatua, oso luzea zeraman garai harten. Emakume bizia zen, oinarri politiko sendokoa, eta aire berezi bat zerion: espirituala, konpromisoa hartzeko idealizazio puntu bat behar izango balu bezala. Operazioa egin baino egun batzuk lehenago, ileordeak eta kamuflatzeako betaurrekoak erostera joan ginen elkarrekin, eta eguneroko zanpaketa eta gizarteari zerion kaka-usaina izan genituen hizpide. Ezin genuen gure askatasun indibiduala ahalegin kolektibo hartatik kanpo ulertu.

Eguna ailegatu zen azkenean, eta bi automobil lapurtu genituen goizean goiz. Sei lagun gindoazen guztira, ondo jantzita, eta bederatzi eta erdietan jarri ginen La Navaleroako bidean. Atean, ardura gabe begira, zaindari armatu batekin egin genuen topo, baina ez genuen oztoporik izan barrura sartzeko, eta bulego nagusia zegoen lekura hurbildu ginen lehenbailehen. Orduan hasi ziren ustekabekoak. Ordura arte ikusi gabeko ordenantza bat ari zen

MENTXAKAREN AITORPENA: La Navaleko lapurreta

aparkatzeko maniobrak antolatzen. Aurrera egitea erabaki nuen hala ere.

–Aparka ezak eraikuntzaren aurrean –esan nion gidariari.

–Nora zoazte? –galdetu zidan ordenantzak.

–Hitzordua daukagu Rojo jaunarekin –erantzun nion.

Informazio zehatza geneukan, bagenekien goi-mailako zuzendaria zela, eta eraikuntza harten bertan zeukala bere bulegoa.

–Ez al zaizue importa automobilak beste leku hartin uztea? –eskatu zigun abegiz, modu onean, eskua metro batzuk urrutia go zegoen leku batera begira.

Aitzakia prest neukan, eta minutu gutxi batzuk eskatu nizkion. Gorka zihoan gidari.

–Gelditu hadi hemen –esan nion-. Zer edo zer oker ateratzen baldin bada, badakik, poltsan daukak metraileta, eta babes gaitzak. Atzeko automobilean zihoan jendearengana hurbilduta jarri hadi Gorkaren ondoan agindu nion txferrari.

Bi poltsa gainean hartuta sartu ginen eraikuntzan. Ordaintze lanak egiteko erabiltzen zituzten bulegoetara ailegatu ginen berehala. Oso jende gutxi zebilen pasilloan. Atea zabaldu genuen arretaz, eta naturaltasunez sartu ginen gero.

–Aizue! –hasi zen esaten enplegatu bat, baina ezin izan zuen esaldia bukatu.

–Eskuak gora! Hau lapurreta da! –esan nuen.

Burua galtzerdi batekin estalita geneukan dagoeneko, eta pistolak atera genituen denok batera.

–Jaitsi ezazu pertsiana hori –esan nion bati-. Azkar!

Aulkietatik altxatzeko agindua eman ondoren, lurrean etzanda jarri genituen denak, buruz behera, eskuak garondoan badaezpada ere.

–Neska...! –deitu nion gero Maiteri-. Zain ezan atea, eta kontuz hauekin!

Istant bat ere galdu gabe, dirua poltsetan sartzen hasi ziren beste guztiak. Zorroetan gordeta zeuden, eta armairuen apaletan

MENTXAKAREN AITORPENA: La Navaleko lapurreta

jarrita zeuzkaten. Bost bat minutu generaman barruan, eta, halako batean, atea ireki zuen norbaitek, baina, ikuskizunaren aurrean, buelta eman eta alde egin zuen korrika. Ezin izan zuten atean harrapatu; ezta Maitek ere; lurrean zegoen jendearen mugimenduei adi egonik, ezin izan zuen ezer egin.

–Irten hadi pasillora, eta zain gaitzan! –agindu nion, eta urduri, izerditan, besteengana hurbildu nintzen gero, denborarik ez galtzeko esatera.

Eraikuntzatik kanpo, aurreko aldean, jendearen zalaparta entzun genuen: alarma-oihua emanda zegoen.

–Goazen, kanpora... automobiletara, laster! –esan nien diruaren parte bat jaso gabe utzita.

Atea zeharkatutakoan, ordea, Maite ez zegoen dagoeneko pasilloan, eta susmo txarra egin zitzaigun. Alde batera eta bestera begira, ez zen inon ageri, eta azkenean bera gabe atera ginен presaka. Irtendakoan, armak eskuan geneuzkala ikusita, alde egin zigun jendeak korrika.

–Non zegok Maite? –galdetu nuen.

–Ez zekiat –erantzun zidan Josuk.

Eraikuntzatik nahiko hurbil, langile-talde bat zegoen bilduta, eta, gaizkileak ginelakoan, gure bila abiatu ziren burdinazko barrak eskuan.

–Automobiletara, arin –erabaki nuen.

Berehala sartu ginен barrura. Zirt edo zart egin beharra neukan, eta atzera eraikuntzan sartzeko aukera aztertzen saiatu nintzen. Argi zegoen arma kendu eta indarrean hartu zutela. Administrari jendea paretaren kontra jarri gero, litekeena zen Maite libre uztea, baina guregana zetorren taldea gero eta gertuago zegoen. Aurreraxeago garabi bat, tona askokoa, bidea mozteko asmotan zebilen. Automobiletik atera gabe, lau tiro bota nituen langileen buruen gainetik, eta pareko horma batean iltzatuta gelditu ziren iskanbilaren erdian. Erabat sakabanatu ziren, eta garabian zegoen langileari apuntatu nion gero, baina urrutti samar zegoen eta kabinak babestuta; beraz, bere erpeak jaisten jarraitu zuen tramankuluak. Zalantzan egon ginен. Guardia Zibila neukan buruan; izan ere, ordurako jakinaren gainean egongo zen, eta burdinazko atzaparren mende geunden. Alde egin beharra zegoen, eta Maite sakrifikatzea erabaki nuen.

MENTXAKAREN AITORPENA: La Navaleko lapurreta

Zitzu bizian atera ginen, eta garabia bigarren automobila zanpatzeko zorian egon zen. Ukitu egin zuen. Ehun bat metrora, fusila eskuan, lantegiko atea zaintzen zuen gizona zegoen. Arma atera nuen leihatilatik kanpora.

–Ea tiro egiten ausartzen den –esan nuen nire artean.

Ez nuen pistola ezinbestean izan ezik erabili nahi, eta zerura apuntatu nuen nire asmoa adierazteko. Ez zuen keinurik egin, eta ez nuen disparatu beharrik izan.

Armak muntatuta eta bihotza taupaka ailegatu ginen Sestao-Barakaldoko bidegurutzera. Ez zegoen guardia zibilik. Hirugarren automobila ikusi genuen bertan gure zain, eta keinu bat egin nien barrukoei. Bata bestearren atzetik sartu ginen Sestaoko kaleetan barrena, eta, adostu bezala, bakoitzak bere bidetik jo zuen bere kontaktuaren bila. Aurki ailegatu ginen Txo zegoen lekura. Maletategia zabalik zeukan ordurako, eta barruan zerbaiten bila zebilelako itxurak ari zen egiten. Bere atzean aparkatu genuen altxorra lekuz aldatzeko.

–Azkar! –esan nion lehenbailehen alde egin zezan–. Gauzak ez dituk erabat ondo atera, baina erabakitakoaren bidetik jarraitu behar diagu.

Etxera abiatu nintzen horren ondoren. Agertu baino lehen, telefonoz deitzeko ohitura neukan, bisitaren batekin topo ez egiteko edo atarian auzorik bazegoen jakiteko, baina egun hartan ez nuen segurtasuneko neurririk bete. Presaka sartu nintzen portalean, eta, zurbil eta ikaran, pisuko atea ireki nuen.

–Zer duzu? –galdetu zidan Ramonik.

Ez nion ezer erantzun. Sukaldeko sofan eseri nintzen lur jota, eta, aurpegia eskuen artean gordeta, negarrez hasi nintzen. Maite harrapatu izanaren erantzule sentitzen nintzen. Ordurako komisariara iritsia izango zen, eta nola torturatzen zuten ikusten nuen nire barruan.

–Esan, Joseba... –galdetu zidan berriro Ramonik–, zer gertatzen zaizu?

Urtebete neraman familia harekin, baina ezer gutxi zekiten niri buruz. Arauari jarraiki, sekula ez nuen erakundearren inguruko batere kontatzen, eta are gutxiago ekintza militarrekin zerikusia zeukan ezer. Egun hartan, ordea, tentsioz beteta, nire barrena hustu beharra neukan, eta, labur, gertatuaren berri eman nion hitz etenka.

MENTXAKAREN AITORPENA: La Navaleko lapurreta

-Zuk ez daukazu errurik, Joseba –esan zidan, bera ikaratu ordez, ni kontsolatu nahian–, ezin zenuen ezer egin.

Mentxakaren aitorpena, 143-148 or.